

FUNTSEZKO ELKARTEAK

ZEIN DIRA BEHAR DITUZUEN BAZKIDE ETA HORNITZAILE NAGUSIAK ZUEN PROIEKTUAK FUNTZIONA DEZAN?

- **Hortz teknologiaren hornitzaileak**, goi mailako teknologiako ekipamenduak, hala nola aho barneko eskanerrak, erradiografia digitalak, 3D eskanerrak.... Bazkide horiek ezinbestekoak dira hortz kliniketarako tresna eta teknologia onenak eskaintzeko eta instalatzeko. Badira hainbat hortz-enpresa eta marka produktu moderno, berritzaile eta kalitatezkoak eskaintzeagatik nabarmentzen direnak, hortz-zaintza hobetzeaz gain, hortz-klinika bati prestigio handia ematen diotenak.
 - **Straumann:** Straumann **hortz-inplanteetan**, biomaterialetan eta hezurak birsortzeko soluzioetan egindako aurrerapenengatik ezaguna da. Hortz-inplanteak, protesi digitalak eta nabigazio kirurgikorako sistemak dira produktu aipagarrienak. Implanteen iraunkortasuna, zehaztasun kirurgikoa eta postoperatorio erraza dela eta nabarmentzen da. Baita bere teknologia berri eta aurreratui esker planifikazioa askoz errazagoa da. (<https://www.straumann.com/es/es/profesionales-de-la-odontologia.html>)
 - **Align Technology (Invisalign):** **ortodontzia** irauli zuten Invisalign lerrokatzaile garden sistemagatik ezaguna da. Gainera, baloabide digitalak eskaintzen dituzte tratamendua zehaztasun handiz planifikatzeko. Lerrokatzaile ikusezinak, estetikoki nabarmenak direnak eta plangintza digitaleko softwarea (ClinCheck). (<https://www.aligntech.com/solutions>)
 - **3M Oral Care:** Ikerketan eta garapenean duten ikuspegiari esker, odontologia estetikorako, hortz-itsasgarrietarako eta ortodontzia-gailuetarako irtenbide aurreratuak sor ditzakete. Produktu nabarmenenak hortzak zuritzeko sistemak ortodontziarako produktuak, erretxina konposatuak eta hortz-itsasgarriak. Produktu hauek oso iraunkorrak dira eta egunerokotasunean erabiltzen dira hortz-kliniketan. (https://www.3m.com/es/3M/es_ES/oral-care-ES/)
 - **Dentsply Sirona:** bere **diagnostiko digitaleko ekipoa** asko erabiltzen da hortz-klinika aurreratuetan. Bere produktu-sorta zabalak,

erradiografia-sistemetik hasi eta endodontzia-tresnetaraino, askotariko beharrei erantzuten die. Gainera erabiltzeko errazak dira eta denbora aurrezteko erabilgarriak dira.

Odontologia digitalean aukera aurreratuak eskaintzen ditu, CEREC CAD/CAM sistema nabarmenduz, bisita bakar batean koroak eta karilak bezalako zaharberritzeak sortzeko aukera ematen duena. Bere DEXIS erradiografia digitalak bereizmen handiko irudiak ematen ditu, eta Primescan aho barruko eskanerra, berriz, inprimaketa digitaletarako zehatzenetako bat da. Gainera, CBCT irudi-sistemek 3D bistaratze zehatza eskaintzen dute inplanteen plangintza zehatza egiteko. (<https://www.dentsplysirona.com/es-es>)

- **Langileentzako prestakuntzak eta kurtsoak** teknologia berrietan oinarrituta, horrela langileak egunerokotasunean egoteko. Baita desgaitasunak dituzten pazienteen tratuari buruz ezagutzak areagotzea.
 - **European School Health Education (ESHE):** formakuntz online ematen dute 475 ordukoa (140€) eta Laneko Arriskuen Prebentzioa eta Laneko Segurtasuna Osasuna hortzetako higienistarentzat irakasten du. Baita beste formakuntz bat ematen dute perfekzionatzeko heldu eta zahartzaroan aho eta hortzen higiena 50 ordukoa da (45€). (https://www.esheformacion.com/es/?gad_source=1&gclid=CjwKCAiA7Y28BhAnEiwAAAdOJUE-i6yu2QG2YHFdhR3XG-iELnuNaOWwPwxoxd7M7b0EOUDmebnmWFhoC7xEQAvD_BwE)
 - **HIDES:** online formakuntz bat ematen du 20 ordukoa (95€) behar bereziak dituzten pazienteen arreta odontologikoa ikasteko. Hala ere beste formakuntz batzuk dituzte oso interesgarriak, baina klinikaren arabera bideratuta izango zen; ortodontzia, inplantologia, pediatria... (<https://www.hides.es/>)
- **Finantzeta esperientzia duen bazkide** batek modu eraginkorrean kudeatu ditzake aurrekontuak eta finantza-plangintza, guri zuzentzeko edo gomendioak emanez. Negozioa finantzekiko iraunkorra izateko behar diren baliabideak emateaz gain, baliabideen kudeaketa eraginkorragoa eta epe luzerako hazkundera eta errentagarritasuna bermatzeko erabaki estrategikoak hartzea ahalbidetuko du. Bazkide horrek hortz-sektorearen erronka ekonomiko eta finantzarioak nabigatzen

lagundu ahal izango du, enpresak gero eta merkatu dinamikoagoan lehiakor izaten jarraituko duela ziurtatuz.

- **Deloitte** hortz-kliniken sarearen estrategiarekin, optimizazio operatiboarekin eta digitalizazioarekin lagunduko digu. Teknologia berriak eta soluzio digitalak inplementatzen ditu, hala nola pazienteak kudeatzeko plataformak eta teleodontologia; horrek bezzeroaren esperientzia eta eraginkortasun operatiboa hobe ditzake. Gainera, diseinu estrategikotik exekuzioraino hartzen duen ikuspegi integrala eskaintzen du, eta horrek aukera ezin hobe bihurtzen du hortz-negozio berritzaile eta ondo egituratu bat sortzeko. (<https://www.deloitte.com/es/es.html>)
- **Hortz material eta produktuen banatzaileak (distribuidoreak)** hortzetan betetzeak egiteko, inplanteetarako, anestesietarako, ortodontziarako... material berriak ematea.
 - **Henry Schein:** Hortz-horniduren eta ekipamenduan hornitzaile globala da, eta 300.000 produktu beino gehiago eskaintzen ditu, tresnak, abangoardiko ekipoa eta marka propioak barne. (<https://www.henryschein.es/>)
- **Kliniken barnealdean diseinuan adituak**, bazkide hauek ingurene estetikoki erakargarria eta funtzionala sortzen lagun dezakete, hainbat faktore (koloreak, nolakoak izango diren paretak...) kontuan hartuta. Horrela, klinika egokitu daitezke desgaitasun fisiko edo mentalak dituzten pazienteak izanez gero. Hauek ezagutza teknikoak eman ditzake espazioak berritzeko eta egokitzeko. Horretarako pintoreak beharko ditugu, altzari enpresa bat...
 - **DecoSalud:** Nazio eta nazioarte mailako erreferenteak arkitektura klinikoaren abangoardian. Arkitektura klasikoan, interiorismoan eta diseinuan espezializatuak. (<https://decosalud.com/>)
- **Ekipamendu ergonomikoen hartzaileak**, langile guztiak ordu asko pasatzen dituzte jarrera behartuetan, eta horrek osasun arazoak sor ditzake epe luzera. Aulki ergonomikoetan, mahi doigarrietan, besoentzako euskarrietan eta jarrera egokitutako ekipoa inbertitiseak lesioak izateko arriskua murrizteko eta erosotasuna hobetzeko.

Hemen hainbat enpresa bilatu ditugu, eta horiekin lan egin dezakegu; izan ere, ezin dugu enpresa bakar batekin soilik konpromisoa hartu, klinika bakoitzaren erosteko

ahalmena kontuan hartu behar dugu eta esaten diguten aurrekontura egokitu beharko gara.

- **Castellini:** Kalitate handiko hortz-tresneria egiten duen marka italiarra da. (<https://www.castellini.com/es/>)
 - Besaulki ergonomiko eta erosoak: pazientearen eta odontologoaren erosotasunerako diseinatuak.
 - Ekipo integratuak: Bere hortzetako unitateek xurgatze-sistemak, LED argiztapena, doitasun handiko tresnak eta ukipen-pantailak dituzte kontrol erraza izateko.
 - Higiene aurreratua: Desinfekziorako eta esterilizaziorako sistema automatikoak dituzte, pazientearen segurtasuna bermatzeko eta osasun-araudiak betetzeko.
- **A-dec:** <https://www.a-dec.com/>
 - Besaulki ergonomiko eta erresistenteak: Pazientearen eta dentistaren erosotasunerako diseinatuak, nekea gutxituz eta postura hobetuz.
 - Arintasuna lanean: Bere hortz-unitateak espazioa optimizatzeko eta instrumentuetarako sarbidea errazteko diseinatura daude, beharrezkoak ez diren mugimenduak murriztuz.
 - Kalitate handiko materialak: Osagai erresistenteekin eta mantentze-lan errazekin eginak, balio-bizitza luzea ziurtatzeko.
 - Higienea eta segurtasuna: Infekzioak kontrolatzeko sistemak dituzte, garbitzeko eta desinfektatzeko errazak diren azalerekin.
- **Energia berriztagarrien inguruan adituak,** gure diseinua edo proposamena egiaztatzeko eta planifikazioarekin laguntzeko. Honen barruan ere **elektrizista talde** bat beharko dugu elektrizitate sistema instalatzeko. (<https://www.iberdrola.es/>)
 - Guk **Iberdrola enpresa** aukeratu dugu gure proiektu jasangarria posible egiteko, enpresa hau eskaintzen duena guk bilatzen duguna delako.

Hauek dira eskaintzen dituen **energia berriztagarriak**🌍:

1. Energia eolikoa (lurrekoa eta itsasokoa)
2. Eguzki-energia fotovoltaikoa
3. Hidroelektrikoa
4. Baterien bidezko biltegitratzea eta ponpaketa hidraulikoa.

Guk aukeratu ditugunak hauek dira: energia eolikoa, eguzki-energia fotovoltaikoa eta baterien bidezko biltegitratzea, aholkularitza jasotzen dugun bezeroen eta zaharberritzen ditugun kliniken arabera.

1. ENERGIA EOLIKOA

Energia eolikoa energia iturri berriztagarria da, haizearen indarraz baliatzen duena elektrizitatea sortzeko. Klima-aldaketaren aurkako teknologia eraginkor eta jasangarrienetako bat da.

Hauek dira energia-sorgailu hori erabiltzen duten hortz-kliniken onurak:

- ✓ Energia-kostuak murriztea eskala txikiko turbina eolikoekin.
- ✓ Energia garbia, autoklabeak, erradiografiak eta klimatizazioa bezalako ekipoekin lan egiteko.
- ✓ Energia-independentzia handiagoa, eolikoa eta biltegitratze-bateriak konbinatuz.

2. EGUZKI ENERGIA:

Eguzki-energia energia-iturri berriztagarria da, eta eguzkiaren erradiazioa baliatzen du elektrizitatea edo beroa sortzeko.

Hauek dira energia-sorgailu hori erabiltzen duten hortz-kliniken onurak:

- ✓ Kostu elektrikoa murriztea, eguzkiaren energia aprobetxatuz.
- ✓ Ekipo medikoen elikadura, hala nola autoklabeak, erradiografiak eta klimatizazioa.
- ✓ Bateriadun sistema hibridoa, energia-mozketen kasuan elektrizitatea ziurtatuz.
- ✓ Jasangarritasun handiagoa eta ingurumen-konpromiso handiagoa.

3. BATERIEN BIDEZKO BILTEGIRATZEA: 🌱

Litiozko bateriak edo beste teknologia batzuk erabiltzen dira iturri berriztagarriek sortutako gehiegizko energia gordetzeko.

Behar denean energia hornitzeko aukera ematen dute (adibidez, gauez, orubearen kasuan).

Klinikaren autonomia energetikoa ahalbidetzen dute.

Biltegitratzea funtsezkoa da energia berriztagarriaren hornidura bermatzeko sorkuntza baxuko uneetan (adibidez, eguzki edo haizerik ez dagoenean).

- **Marketing eta publizitatea**, hortz kliniken ikusgarritasuna hobetzen laguntzen duten kolaboradoreak marketing digitaleko kanpainen bidez, publizitatea egitea sare sozialetan... Hau gure kontuz egingo dugu.

ZERGATIK DIRA GARRANTZITSUAK GURETZAKO?

Berriklinikan, funtsezkoa da hainbat enpresa eta markarekin lankidetzan aritzea hortz-klinikei konponbide integralak eta kalitate handikoak eskaintzeko. Aiantza horiei esker, teknologia eta zerbitzu espezializatuak eskura ditzakegu, berrikuntzan abangoardian gaude eta emaitza eraginkorrak bermatzen ditugu. Gainera, marka ezagunekin lan egiteak gure bezeroen konfiantza indartzen du, eta jasangarritasuna, diseinua, eraginkortasuna eta paziente berriak erakartzea barne hartzen dituen balio bakarreko proposamen bat sortzen laguntzen digu. Ikuspegi horrek klinika bakoitzaren esperientzia hobetzeaz gain, gure hedapena eta arriskuak murrizten ditu, eta gure misioan zentratzea ahalbidetzen digu: hortz-sektorea modu integralean eraldatzea. Kontu handiz aukeratu behar dira elkarte hauek, helburu eta balio berdintsuak dituztela ziurtatuz, gurekin bat egin ahal izateko. Bazkide talde on batek enpresaren arrakastaren eta porrotaren arteko aldea markatu dezake.